



## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2017/09/01)</b>  Hurrengo saioa: 2017/09/15	Udalekuen balorazioa	Partaideen familia gehienek erantzun dute inkesta eta balorazioa orotara oso positiboa izan da: begiraleen profesionaltasuna eta jardueren kalitatea, komunikazioa, garaia, ordutegia, espazioak, komunikazioa, elkarbizitza...	Datorren urterako autobus zerbitzuaren kostea azter liteke eta adin tarte ere bai.
	Kirol Jardueren eskaintzarako inkesta	Herritar guztiei banatzeko inkesta osatu da. Formulario digitalez ere egin ahal izango da eta paperez. Alegian beste udal buzoi bat jarriko da, herritarren erabilerarako.	Erantzun guztiekin interes nagusienak bildu eta bilera batera deitu egutegia/ordutegia/lekua zehazteko
	Kizkitzako pagoa	Irailaren 8rako kentzeko, igandean, hilak 3, goizeko 9:00etan, egurra nahi dutenen artean geratu.	
	Arrate irratia	Kizkitzako eguneko erromeriaren berri zabaltzeko, 90€ eskatu dute erromeria zaleek (Beasaingo Mujikaren bidez). Eskaria onartu da.	
	Ekimenen aurreikuspena	Udazkeneko Auzolana azaroan. Zein lan egin erabakitzeko, proposamenak jaso. Biolur Ate Irekiak urriaren 29an	Herri Batzarra aurreikusi eta taula osoa zehazten bada banatu.




LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2017/09/09)</b>  Hurrengo saioa: 2017/09/23	Bideetako berritze lanak	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ariolara doan pistaren hormigonatze lanak datorren astean hasi eta hiru asteko epean bukatuta izango dira (350 m. inguru- Elormendiko bide gurutzetik Kizkitzako bide gurutzeraino. Gaiñera enpresa ari da lan hori burutzen.</li><li>- Eztalako eskoilera lana ere Gaiñera enpresak egingo du eta irailaren erdialderako amaituta egotea aurreikusten da.</li></ul>	
	Leader diru-laguntza	<p>Leader programa ateratzen denerako (irailean/urrian), Udaletxean eta Alegian egin nahi diren obrak landu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Udaletxean teiltua konpondu eta, barrutik, sabaia egokitu; Sarreran, irisgarritasuna bermatuko duen proiektu bat aurrera eramane. Diputazioko arkitektoak egindako plana aztertzen aritu gara eta sarrera nagusia, espazioaren banaketa eta ganbararako eskailerak moldatzearen proposamena landu dugu, Ostatuko etxebizitzari ere eragingo diona (luzarora begira, Udaletxea, etxebizitza eta ganbararentzat planteamendu orokor bat landuz).</li><li>- Alegian haur parkea, inguruko berdegunea, komunak, iturria, etab. berrituko/jarriko dira.</li></ul>	Diputazioko arkitektoarekin gure proposamenak erkatu eta proiektua garatzen hasi.
	Kanposantuan iturria eta beste lan batzuk	<p>Kanposantuan iturria jartzeko mangera pasata badago ere, ur kontadore bat jarri behar da eta alta eman. Ur zikinen isurbidea ere bideratu behar da.</p> <p>Egiteko dauden beste lan batzuk:Seinaleak (baserrietakoak, bidegurutzetakoak,...), Zabalegiko bidegurutzeko iragarki taula eta buzoiak eliz atariko argiteria,...</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Iturria zehazki non kokatu behar den Narrasperekin hitz egin.</li><li>- Pott zeramikakoek egingo duten iturriaren diseinua eta aurrekontua aztertu.</li><li>- Estirekin hitz egin seinaleen kontua nola dagoen jakiteko eta Narrasperekin adostu noiz egin lan horiek.</li></ul>



**ITSASOKO**  
**UDALA**  
(GIPUZKOA)

	Koru azpiko gunea	Koru azpian dagoen gunea Herri Batzarretarako egokitu nahi da. Horretarako argiteria hobetu egingo da eta gortinaz isteko modua egin.	- Aurrekontuak eskatu eta horiek aztertu.
	ETSko alegazioak	Euskal Trenbide Sareak, orain sei urte, AHTko obrak egin zituenean Uribartik Alegiarantz doan gunean izandako desjabetzeen inguruko informazioa eta ondoren egindako alegazioen berri eman da. Erreka, belardi eta soro horiek ez dituzte oraindik bere onera ekarri eta alegazioak egiteko epea ireki zen. Alegazioen erantzunik edo lursailen errekupeazioaren berririk ez egon arren, Udalak kaltetutako lurjabeei bere babes ematea erabaki zuen. Horretarako idatzi bat prestatu zuen.	



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/09/05)</b>  Hurrengo saioa: 2017/09/19	Erretaularen eraberritze bidean izandako azken berriak eta bere balioari zabalkundea emateko aurrerapausoak ikusi.	Eraberritze lana urtarrilaren bukaerarako amaitua egotea espero da eta udaberri aldera hitzaldi bat ematea da aurreikusten dena. Hiru fase aipatuko dira: errestaurazioaren aurretik zegoena, prozesuan topatu dutena eta bukaerako emaitza. Horretarako aditu talde bat ari da lanean: - Diputazioak eraberritze lanak ikuskatzeko jarri duen enpresak (PETRA), Equipo 7ko errestauradoreekin batera, herriari eta interesa duten guztiei informazioa helarazteko prest agertu dira. - Pedro Etxeberria Goñi, XVI. mendean aditua den historialaria dator irailaren 21ean. - Alberto Santana historialariaren bisita ere urrian espero da. - Josu Marotoren taldeko den Ainara Iroz (Aldundian Ondareaz arduratzen direnak) ere gaia gertutik jarraitzen ari da. - Diputazioak Juantxo Egaña argazkilaria kontratatu du, andamioak aprobetxatuz, erretaula osoa argazkietan jasotzeko, baita ,n tamaina txikiko filigranak ere, ondorengo ikerketetarako oinarria izateko. - Arkeolan enpresako Josue Susperregik dendrokronologia estudioa egiteko agindua jaso du eta haritz egurraren datatze lana egingo du.	- Udaberriko hitzaldia helburu hartuta, erretaularen inguruan adituek esandakoak jaso, balioan jarri, partekatu. - Hitzaldiaren antolaketa pentsatzen hasi.
	Kirol eta jarduera fisikoen eskaintza herritarrentzat	Herritarrei Kirol eta jarduera fisikoen inguruko eskaintza prestatzea, inkesta baten bitartez, herritarren interesak ezagutzeko.	Inkesten emaitzak aztertu eta modalitate bakoitzerako dagoen jendearekin bilerak antolatu.
	Web orria	- UDALA atalean egiturari gain begirada bat bota eta dauden atalak osatzen joateko arduradunak izendatu.	- Osatzen joan garena partekatu. - Web orria ikusgai noiz jarri daitekeen erabaki.